

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 799/2016, Erabakia, azaroaren 29koa, behin betiko onartzen duena ondasun higiezinaren gaineko zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala, Urkabustaizko udalerrirako egina

Urriaren 14ko 555/2016 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Urkabustaizko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren partezko aldaketari, udal horren 4 poligonoko 46 eta 47 lurzatiak berriz mugatzeko proiektuaren arabera, zeina alkatearen abenduaren 15eko 157/2015 Ebazpenaren bidez onartu baitzen eta egin, berriz, ebazpen horren eta ekainaren 17ko 285/2014 Foru Aginduaren, Urkabustaizko udalerrirako hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea baldintzekin behin betiko onartzekoaren, arabera egin baitzen.

Halaber, behin-behineko onarpena eman zitzaion udalerrirako hiri ingurunean sarturiko lurzatiei egotz dakizkiekeen katastro balioei, kontuan hartuta orain hiri izaera daukatela. Katastro balio hori bat dator Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 31ko 1120/1999 Erabakiaren bidez onartutako indarreko balioztapen txostenean onartutako balioekin.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, bere 4. paragrafoko 11. artikuluan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igaro ondoren Urkabustaizko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea, 1:1000 eta 1:1500 eskaletako planoen arabera, Urkabustaizko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren partezko aldaketari, udal horren 4 poligonoko 46 eta 47 lurzatiak berriz mugatzeko proiektuaren arabera, zeina alkatearen abenduaren 15eko 157/2015 Ebazpenaren bidez onartu baitzen eta egin, berriz, ebazpen horren eta ekainaren 17ko 285/2014 Foru Aginduaren, Urkabustaizko udalerrirako hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea baldintzekin behin betiko onartzekoaren, arabera egin baitzen.

Bigarrena. Udalerrirako hiri ingurunean sartuta dauden lurzatiei bere hiri izaeraren arabeko katastro balioa ematea, bat etorri beharko dena indarrean dagoen eta Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 31ko 1120/1999 Erabakiaren bidez onartutako balioztapen txosteneko zerga poligonoen katastro balioekin.

Hirugarrena. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, bere 2. artikuluko b) idatz zatiko 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinak hartutako lurzoruei dagokienez.

Laugarrena. Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Urkabustaizko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko

zerga arautzen duenak, 11. artikulua 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ